

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA  
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

### 1554

*105/2021 DEKRETUA, martxoaren 9koa, zeinaren bidez kredituak gaitzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2021eko aurrekontuko 4421 – Ingurumenaren babesaren izeneko programan, programa horretan bertan diru-sarrerak egon direlako (zenbatekoa: 766.414,06 euro).*

Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Politikako zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 22ko Ebazpenaren bidez, 766.414,06 euro sartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, Vascontainer, SA merkataritza-sozietateak jarritako abala betearaztearen kontzeptuan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak abala erabil dezan aipatutako enpresari ezarritako zehapen-espeditatearen barruan erabakitako kautelazko neurriak ordaintzeko, aipatutako enpresaren kontura. Izan ere, enpresari zehapena jarri zitzaion ustez abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 31.3.b) artikuluan tipifikatutako arau-hauste larria egin zuelako (1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Hori dela eta, dekretu honen bidez, kreditu hori gaitzen da, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorretan kreditu-gaikuntza bat onartzea, gastuen egoera-orri honi dagokionez:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4421	238.99	766.414,06

Kreditu hori sortu da, sarreren egoera-orri honetan kopuru bereko diru-sarrerak egon direlako:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4421	393.02	766.414,06

Funtsak Vascontainer, SA merkataritza-sozietateari zehapen-espeditatearen barruan erabakitako kautelazko neurriak finantzatzeko erabiliko dira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 9an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.